

**FAGOT TUTTI bat KONTRAFAGOTA jotzeko obligazioarekin HAUTATZEKO LEHIAKETA
2019ko Urriaren 4 eta 5ean
OINARRIAK:**

1. LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA.

Bete beharreko postua FAGOT TUTTI – KONTRAFAGOTA jotzeko obligazioarekin delakoa da eta langileen Estatutuan eta indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera arautuko da.

2. BETEKIZUNAK.

- Adin nagusia izatea izena emateko azken egunaren aurretik.
 - Goi Titulua edo horren parekidea edukitzea*.
 - Lana burutzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez edukitzea.
 - Ezintasun-kausa ez edukitzea.
 - Antzeko zereginak gauzatzean falta larriagatik zigor diziplinariorik ez edukitzea.
 - Nazionalitate oroiei irekia.
- *Salbuespenez, Epaimahaiko Presidenteak (Sekzioko bakarlariaren, eta bere interes berezien arabera) Entzundaldi honetan eskatutako titulazioa ez duten hautagaitzak hartu ahal izango ditu.

3. IZANGAIEN ONARPENA.

Hautapen-probetan parte hartu nahi duten pertsonak <https://www.muv.ac/es/orquesta-sinfonica-de-euskadi-basque-national-orchestra-euskadiko-orkestra-sinfonikoa> izena eman eta dokumentazioa jarri beharko dute 2019/09/13a baino lehen.

- EBko herritarrak: NANaren edo pasaportearen kopia.
- EB kanpoko herritarrak : Pasaportearen kopia.
- Goi Titulazioaren edo horren baliokidearen kopia.

Informazio orokorra: pmaiz@euskadikoorkestra.eus

Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda www.euskadikoorkestra.eus web-orrian argitaratuko da 2019/09/16 egunean. Zerrendan agertzen ez diren izangaiak 2 lanegun epea edukiko dute zerrendatik kanpo geratzeko arrazoi izan diren akatsak edo dokumentuak zuzentzeko. Epe hori amaitzean, izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4. EPAIMAHAIA.

Epaimahaia Zuzendari Musikala edo Euskadiko Orkestraren Aholkulari Artistikoarekin, Presidente gisa, eta bere Pertsonal Artistikoarekin osatuko da.

Zuzendari teknikoa, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe eta Zuzendari Nagusiak, Errejidoreak eta Enpresa Batzordeko ordezkari batek parte ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.

5. PROBAK EGITEA.

- Beste Orkestra Profesional batean Kontratoa dutela frogatzen duten hautagaiak, zuzenean 2. Ariketara joango dira eta prest egon beharko dute edozein beste obrak jotzeko, baita 1go Ariketakoak ere.
- Lehiaketa prozedura guztia Orkestraren web orrian jarritako Lehiaketen Araudiaren arabera egingo da.
- Urriaren 4an, 9.30etan, Lehiaketa burutuko da. Behar izan ez gero, Lehiaketarekin jarraitu ohi izango da urriaren 5an goizeko 9.00etatik aurrera .
- Hautagai guztiak N.A.N. edo Pasaportearen bidez egin beharko dute errejistroa Audizioa hasi baino 30' lehenago.
- Orkestrak Kontrafagota parte-hartzaileen eskura jarriko du, lehiaketa eguna baino zenbait egun lehenago eta Audiziorako. Kontrafagotarekin entsaiatzeko ordutegia izateko interesa duten hautagaiak pmaiz@euskadikoorkestra.eus helbidearekin kontaktoan jarri.
- Orkestrak piano-jotzaile laguntzaile bat jarriko du, proba egiten den unean, parte-hartzaile bakoitzarekin jotzeko.
- Hautapen-probak hainbat fasetan burutuko dira eta Epaimahaiak erabakiko ditu faseak. Faseak kanporatzaileak izango dira normalean; lehen fasea, gutxienez, gortina atzean egingo da.
- Epaimahaiak, egokitzen jotzen duenean, zati zehatz bat interpretatzeko eskatu ahal izango du, edo nahi duenean amaitutzat jo ahal izango du izangai bakoitzaren proba.
- Lehiaketa honetan 3 lehenengo baleko hautagaiak bidai eta alojamenduko poltsa izateko aukera dute, beti ere gastuak erreziboz justifikatuta, 350,00€ko kopuru maximorarte.

6. KONTRATAZIOA.

- Hautatutako izangaiak Orkestraren Administrazioarekin harremanetan jarri behar du (administrazioa@euskadikoorkestra.eus) eta 15 egun naturaleko epea edukiko du, Orkestrak adierazitako daten barruan kontratazioa izapidetzeko beharrezkoa den dokumentazioa bidaltzeko.
- Kontratoa mugagabea izango da eta 6 hilabeteko frogaldia edukiko du. Urteko soldata gordina **43.000 EURO** ingurukoa da. **Lanean hasteko lehen bait lehen.**

FAGOT TUTTI KONTRAFAGOTa jotzeko obligazioarekin

ARIKETAK:

Ariketak **2019ko urriaren 4ean 9:30tan eta urriaren 5ean 9.00tan** izango dira, **EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKO**aren egoitzan, **Miramongo Pasealekua, 124 zk., Donostia.**

EJERCICIOS:

I.- Derrigorrezko piezak:

- W.A. MOZART: Fagot eta Orkestrarako Kontzertua K.191 Si bemol maiorrean. I eta II mugimenduak kadentziarik gabe.
- I. MILDE: 50 Concert Studi Op.26 I aletik, 9. Estudioa Do sostenido minorrean (Fagot)

II.- Errepertorioa Kontrafagot *:

- L. Van Beethoven: Fidelio, Op.72. Akto 2. Zb.12 Melodrama eta Dueto (* Or.42)
- L. Van Beethoven: 5. Sinfonia do minorrean, Op. 67. IV mug. (* Or.41)
- J. Brahms: 3. Sinfonia Fa maiorreana, Op. 90. I eta IV mug. (* Or. 44-45)
- W.A. Mozart: Fagot eta Orkestrarako Kontzertua KV 191, Si bemol maiorrean. II mug. (Idatzia dagoen bezala jo behar da 8. Bat baxuago entzungo delarik)
- M. Ravel: Piano eta Orkestrarako Kontzertua Re maiorrean (esku ezkerrean). Lento (* Or. 46).
- M. Ravel: Ma mère L'oye. IV. *Les entretiens de la Belle et de la Bête* (* Or. 45)
- R. Strauss: Salome, Op 54 (* Or. 46)
- R. Strauss: Elektra, Op. 58 (* Or. 47)
- G. Verdi: Don Carlos. Akto 3. Eszena 2. (* Or.47)

III.- Errepertorioa Fagot *:

- L. Van Beethoven: Biolin eta Orkestrarako Kontzertua, Op.61 Re maiorrean. I, II eta III mug. 1. Fagot (* Or. 5-6)
- H. Berlioz: Sinfonia fantastika, Op.14.
 - o IV eta V mug., Fagot 4. (* Or.8)
 - o Hexen-Rundtanz, Fagot 2. (*Or.8)
- J. Brahms: Biolin eta Orkestrarako Kontzertua Op.77 Re maiorrean, II mug. Fagot 2. (* Or. 12)
- J. Haydn: 88. Sinfonia Sol maiorrean. I eta IV mug. Fagot 2. (*Or. 14-15)
- W.A. Mozart: Figaroren Eztaiak KV 492. Obertura. Fagot 1. (*Or. 16)
- M. Ravel: Piano eta Orkestrarako Kontzertua, Sol maiorrean. III mug. Fagot 2. (*Or. 22)
- M. Ravel: Rapsodia Española. I. Prélude à la nuit. Fagot 2. (* Or. 23)
- B. Smetana: Andragai Saldua. Obertura Fagot 2. (* Or. 28-29)
- P.I. Tschaikovsky: 6. Sinfonia, Op. 74, Si minorrean. IV mug. Fagot 2. (* Or. 37)
- E. Wagner: Lohengrin. Akto 2. Eszena 3. Fagot 2. (* Or. 38)

IV.- Lehen begiratuzko irakurketa:

* **Errepertorioa eskuragarri:** Orchester-Probespiel : Fagott / Kontrafagott / herausgegeben von Karl Kolbinger und Alfred Rinderspacher.- Schott, EP 8662.- ISMN M-014-06990-2

* Arauok interpretatzeko, gaztelaniaz idatzitako testuarena da balio duen bertsio bakarra.

